BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2201

AGINDUA, 2013ko apirilaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzak 2012ko ekitaldian jaso dituzten erakunde onuradunen zerrenda argitartazeko dena; aipatutako agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean betebehar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, agindu honen bidez, onuradunen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren 14.4 artikuluan eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, adierazitako agindu horren arabera emandako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea, eranskinean ageri den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 16a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

Erakunde onuraduna	Zenbatekoa (€)
Asociación de Fundidores del País Vasco y Navarra-AFV	120.000,00
Euskadiko Elikaduraren Clusterra	20.000,00
Asociación Basque Biocience Cluster-BBC	53.555,23
Asociación Cluster del Sector del Hábitat, Madera, Oficina y Contract-HABIC	120.000,00
ERAIKUNE-Euskadiko Eraikuntzaren Clusterra	20.000,00
Asociación Española de Fabricantes de Herramientas de Mano-HERRAMEX	96.983,52
Asociación Española de Exportadores de Productos e Instalaciones Siderúrgicas-SIDEREX	120.000,00
Sociedad Industrias Forja por Estampación, S.L.-SIFE	76.428,32
Euskadiko Mugikortasun eta Logística Klusterra-MLC ITS	5.482,88
LANGUNE-Hizkuntz Industrien Euskal Herriko Elkartea	42.046,91
Asociación Española de Fabricantes Exportadores de Material, Equipos y Servicios Ferroviarios-MAFEX	120.000,00
Guztira	794.496,86